

PROFESIO SANITARIOEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZAKO EUSKAL KONTSEILUA

2002KO JARDUEREN MEMORIA

Ohiko Batzarrak

Ebaluazio Batzordeak 11 batzar egin ditu, eskabide-sarreraren erritmoaren arabera deialdia eginda. Batzorde Iraunkorra behin baino ez da batzartu (maiatzean). Osoko Bilkurak ez du urte osoan batzarrik egin.

Urtarrilean, Batzorde Iraunkorraren eta Ebaluazioko Batzordearen Lehendakaritzetan erreleboa egin zen, Osasun Sailaren Egitura Dekretu berria indarrean sartzearen ondorioz. Beraz, Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendariari dagokio Batzorde Iraunkorraren Lehendakaritza; eta Irakaskuntza eta Garapen Profesionalburuari Ebaluazioko Batzordearen Lehendakaritza (Batzorde Iraunkorrek 2002ko maiatzaren 21ean, 5 Zk.ko aktan jaso zuen Akordioa betez).

Jardueren kreditazioa

2002ko urtean 227 eskabide jaso dira. Jasotako 227 eskabideetatik 137 lehenengo edizioak izan dira (%60), 90 ondorengo edizioak (%40), 160 kreditatu dira (%70), 34 baztertu dira (%15), 18 eskabide ez dira onartu (%8) epez kanpora aurkeztearren; eta 15 eskabide hornitzaileak erretiratu ditu (%7).

HELBURUKO POPULAZIOA	KREDITATUTAKO JARDUERAK	BAZTERTUTAKO KREDITAZIOAK	EZ ONARTUTAKO ESKABIDEAK	ERRETIRATUTAKO ESKABIDEAK
MEDIKUNTZA	25	3	3	1
ERIZAINNTZA	80	17	8	6
FARMAZIA	15	1		2
MULTIDIZPL.	39	13	7	6
FISIOTERAPIA	1			
GUZTIRA	160	34	18	15

Baztertutako kreditazioei dagokienez, 3 baztertu dira (%6) prestakuntza erregulatua izatearren, 5 (%15) kalitatean 1a ez gainditzearren, eta 26 (%79) etengabeko prestakuntzatzat ez jotzearren profesio sanitarioetarako, Idazkaritza Teknikoek euren batzarrean onartu zituzten irizpideak oinarritzat hartuta (osasunaren zientzietan gai ez-espezifikokoak, langilearen autozainketarako edo enpresaren antolaketa-aspektuetarako mugatzen diren edukikoak, sistema informatikokoak edo diana-populazioari ez dagozkion gaiak).

Eskabiderik eta kreditaziorik gehien aurkeztu dituen **talde profesionala** erizaintzakoa izan da (%50), iaz bezala eta alde handiz; bigarren, medikuntzakoa dator (%16) eta hirugarren farmaziakoa (%9). Multidiziplinarrek %24a osotzen dute, %1a fisioterapeutei kreditatutako jardueri dagokie.

Kreditatutako jardueren %99 presentzialak dira eta jarduera mistoak %1a baino ez dira. Ez da kreditatu jarduera ez-presentzialik (eskabiderik ere ez). **Jarduera-motari** dagokionez, %4 Kongresuak eta jarduera asimilagarriak (iraupen laburreko masiboak) izan dira; gainerakoa, %96, ikastaroak eta antzerakoak (tailerrak, mintegiak).

Kreditatutako jardueren %70k 21 ordu baino gutxiagoko **iraupena** dute. Ehuneko 24k 21 eta 40 ordu bitartean irauten dute; %2,5ek 41 eta 80 ordu bitartean, eta %3k 80 ordu baino gehiago. Ikastordu-kopuruaren banaketa asimetrikoa da: gutxienez 3 ordu eta gehienez 97,5.

Kreditatutako jardueren %50ek 21 eta 30 bitarteko **partaide-kopurua** du. Gainerakoa oso aldakorra da: gutxienezkoa 12koa, eta gehienezkoa 350koa. %28k 21 ikasle baino gutxiago du, %14k 31 eta 40 bitartean, %2k 41 eta 50 bitartean, eta %6k 50 baino gehiago.

Kreditatutako jardueren **komponente kualitatiboari** dagokionez, jardueren %82,85a 1,4 eta 2,2 bitartean aurkitzen da. Gainera %15a zuzen banatzen da komponente kualitatiboan artean: Ehuneko 7,5a 1,4tik behera, eta ehuneko 7,5a 2,2tik gora.

Hornitzailerik garrantzitsuena Osakidetza da, eskabideen %43a du-eta (Zerbitzu Zentralak, Ospitaleak, Ikerkuntza Unitateak eta Irakaskuntza Unitateak). Ondoren, Profesionalen Elkargoak datoz %34rekin.

ENTITATE HORNITZAILEA	KREDITATUTAKO JARDUERA-KOP.
OSAKIDETZA-Zerb. Zent.	53
BIZKAIKO ERIZAINZAKO ELKARGOA	17
GIPUZKOAKO ERIZAINZAKO ELKARGOA	14
BIZKAIKO BOTIKARIEN ELKARGOA	11
GIPUZKOAKO MEDIKUEN ELKARGOA	7
SANTINVEST (SANTIAGO OSPITALEKO IKERKUNTZA ELKARTEA)	7
LEHEN MAILAKO ATENTZIOKO IKERKUNTZA UNITATEA (BIZKAIA)	6
ARABAKO ERIZAINZAKO ELKARGOA	5
OSASUN SAILA	4
GASTEIZKO ERIZAINZAKO ESKOLA	4

SYCOM TRAINING SYSTEMS	4
ARABAKO BOTIKARIEN ELKARGOIA	2
ARABAKO IKERKUNTZA UNITATEA	2
ARABAKO MEDIKUEN ELKARGOIA	2
SANTIAGO OSPITALEA	2
MEDIKER-POLIKALTE	2
FARMAZIA ASISTENTZIALEKO INSTITUTUA	2
PHARMADATUM DATU-AZTERKETAK S.M.	2
DONOSTIAKO OSPITALEA	1
GALDAKAKO OSPITALEA	1
ARABAKO OSPITALE PSIKIATRIKOA	1
TXAGORRITXUKO OSPITALEA	1
BEHARZENA (SANTIAGO OSP.KO INTENTSIBISTEN ELKARTEA)	1
GIPUZKOAKO ODONTOLOGOEN ELKARGOIA	1
OFTALMOLOGIAKO INSTITUTU KLINIKO-KIRURGIKOA	1
ANESTESIA ETA BIZKORKETAKO EUSKAL ELKARTEA	1
PEDIATRIAKO EUSKAL ELKARTEA	1
A.E.P.KO OSPITALEZ KANPOKO PEDIATRIAKO SAILA	1
ANGULEMAKO ZERBITZU MEDIKOAK, S.M.	1
UMADE FORMAZIOA	1
ESKU-MEDIKUNTZAKO ZENTROA	1
FUDEN (ERIZAINZTA GARATZEKO FUNDAZIOA)	1

Kreditatutako jardueren **eremuak**, funtsez, klinikoak dira (atentzio zuzenekoak) profesio guztietan (%62 medikuntzan, %66 erizaintzan, %50 farmazian), jarduera multidiziplinarretan izan ezik, jakina (%36). Eremu ez-klinikoen (zeharkakoen) artean zenbait jarduera kreditatu dira, eta euren kokapena ondoko eremuak dira: ikerkuntza, ebidentzian oinarritutako medikuntza, gestioa eta kalitatea.